Iurreta
Eleizateko Udala

ARRIANDIKO N-634 EREPIDEAREN ONDOAN ESPALOI BIDEGORRIA BURUTZEA

OBRA KONTRATUA, PROZEDURA IREKIA

ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA KONTU OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, ARAU APLIKAGARRIAK ETA ESLEITZEKO MODUA

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO MOTA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK

KREDITUA ETAKONTRATUAREN PREZIOA.....

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA .....

4.- PLEGUAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA .....

II.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATUTAKO AGIRIAK

5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK .....

6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATUTAKO AGIRIAK .....

7.- AGIRIEN KALIFIKAZIOA 7

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ESLEIPENDUN GISA PROPOSATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

9.- JAKINARAZPENAK

10.- BEHIN-BETIKO BERMEA

11.- ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA .....

IV.- KONTRATUA GAUZATZEA

12.- KONTRATUA GAUZATZEA .....

V. KONTRATUAREN BURUTZAPENA

13. KONTRATUAREN BURUTZAPENA

14. DATUEN BABESA

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA ESKUMENA DAUKAN JURISDIKZIOA

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA ESKUMENA DAUKAN JURISDIKZIOA ...

Iurreta
Eleizateko Udala

I. KONTRATUAREN XEDEA ETA EZAUGARRIAK

1. KONTRATUAREN XEDEA, APLIKA DAITEZKEEN ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1.- Kontratu honen xedea plegu honen hasieran dagoen Ezaugarrien kuadroaren A) atalean azaldutako obraren burutzapena kontratatzea da.

1.2.- Obra proiektuan xedatutakoaren arabera burutuko da, baita memoriak obra unitateek osatzen dituzten oinarrizko material edo elementuen inguruan deskribatzen duenaren arabera.

Ondorio guztietarako, Administrazio Berezien Plegu hau, ezaugarrien taula, proiektu teknikoa eta eranskinak kontraturako dokumentuak izango dira, eta, beraz, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzte eta kontratua formalizatzeko egintzan sinatu egin behar dira enpresa adjudikazioduna ados dagoela frogatzeko.

1.3.- Honako hauen bitartez arautuko da kontratazioa: plegu hau; proiektu teknikoa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, eta horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora; eta Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, bai eta estatuan zein Euskal Autonomía Erkidegoan kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak ere, baldin eta kontratazioaren alorrean aplikatu ahal badira.

1.4.- Kontratua prozedura irekiaren bitartez adjudikatuko da, aintzat hartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 156. artikulutik 158. artikulura ezarritakoa eta Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean dagozkion artikuluetan jasotakoa edo ordezkatzen duen arauzko xedapenekoa.

2.- KONTRATUARI KALKULATU ZAION BALIOA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO-TASA GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EDUKITZEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, oinarrizko lizitazio prezioa eta lizitazio mota plegu honen ezaugarrien kuadroaren B) atalean agertzen direnak dira.

2.2.- Udalak badu kontratu honek sortutako edozein obligaziori aurre egiteko egokitzat jotzen den aurrekontu kontsignazioa, B) atalean agertzen dena.

Hala ere, aurretiaz izapidetu den espedientea izan ezkero, kontratuaren burutzapena berarengandik eratorri daitezkeen obligazioendako kreditu nahikoa egotearen baldintza etenarazleari lotuta egongo da.

2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikaziokoa izango da eta ezin izango du administrazioak egindako lizitazio-aurrekontua gainditu.

Ondorio guztietarako, ulertu egingo da kontratuaren prezioak barne hartzen dituela enpresa kontratistak kontratatutako obra ondo gauzatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, bai eta indarrean dauden xedapenak aplikatzean sortzen diren beste tasa guztiak eta mota guztietako zergak eta lizentziak ere, bai udalerrikoak, probintziakoak zein estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1.- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta benturan burutuko da.

3.2.- Hasierako bidezkotasunerako edo prezioen berrikuspena bidezkoa ez izateko, ezaugarrien taulako D) atalean adierazitakoa bete beharko da. Berrikuspena bidezkoa ez denean, halaxe jasoko da atal horretan. Hasierako prezioen berrikuspena bidezkoa denean, atal horretan berrikuspen horretarako aplikatuko den indizea edo indizeak adieraziko dira.

Prezioak berrikusteko araubide juridikoa SPKLren 103.etik 105.era bitarteko artikuluetan eta APKLEOren 104., 105. eta 106. artikuluetan ezarritakoa izanen da. Obra-kontratuaren prezioak berrikusteko eredu orokorrak urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuan onartutakoak dira.

3.3.- Ezaugarrien koadroan prezioen berrikuspena jasotzen ez bada, egoera hori ez da aldatuko exekuzio-epea luzatzeagatik, baldin eta epe hori ez badago Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik, hau da, SPKLren 239. artikuluan ezarritakoengatik.

3.4.- En el supuesto de que el cuadro de características contemple la revisión de precios, ésta únicamente procederá cuando el contrato se hubiese ejecutado en el 20 por 100 de su importe y hayan transcurridos dos años desde su formalización, de tal modo que ni el porcentaje del 20 por 100 ni los dos primeros años de ejecución, contados desde la formalización del contrato, pueden ser objeto de revisión, tal y como establece el artículo 103 de la LCSP.

4.- PLEGUAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio Baldintza Berezien Pleguak, baldintza teknikoak eta gainerako dokumentazio osagarria kontratazio publikorako Euskadiko plataforman egongo dira, eta lurretako Udalaren Kontratatzailearen Profilaren bitartez sartu ahal izango da bertara. Espedientea lurretako Udaletxean kontsultatu ahal izango da, Aita San Migel plazako 4. zenbakian, 8:30etatik 14:00etara lanegun guztietan, informazioa aipatutako plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Espedienteari buruzko informazio guztia, beste edozein datu eta administrazioaren kontratu-jarduerari buruzko informazioa Euskadiko Kontratazio plataforman argitaratuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 63. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Sarbidea Euskadiko Kontratazio Publikoaren kontratazio plataformatik edo lurretako Udalaren Kontratatzailearen Profiletik egin ahal izango da.

Orrien gainean edo, bere kasuan, lizitatzaileek eskatzen duten dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria sei eguneko epean eman beharko zaie, dokumentu bakarrean, baldin eta eskaera proposamenak aurkezteko epea amaitu baino hamabi egun lehenago egin bada.

SPKLaren 136.2 artikuluan (138.3ari dagokionez) ezarritakoaren arabera, pleguei buruz edo dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria esandako epeetan ezin izan denean eman, edo eta proposamenak egiteko lekua bertatik bertara ikusi behar denean edo dokumentazio Udaletxean kontsultatu beharra dagoenean, eskaintzak aurkezteko epea egokitzat jotzen den denboraz luzatuko da lizitatzaileek eskaintzak egiteko beharrezko informazio guztiaren ezaguera hartu arte.

II.-- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIOAN ONARTUAK IZATEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA

5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK

5.1. Eskaintzak aurkeztu ahal izango dira kontraturako lizitazioan eta aurrerago zehaztuko den modu zehatzean Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik ez badute eta finantza- zein ekonomia-kaudimena eta gaitasun teknikoa egiaztatzen badute, edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen ahal egiaztatzen duenean behar den moduan sailkatuta badaude.

Enpresek, era berean, kontratuaren gaia den jarduera edo prestazioa aurrera eramateko eskatu daitekeen enpresa edo lanbide arloko gaikuntza eduki beharko dute, ezaugarrien kuadroaren F) atalean zehaztutakoaren arabera.

Pertsona juridikoek kontratuetarako lizitatu ahal izango dute, baldin eta kontratuko prestazioak erakundearen berezko helburu, xede edo jarduera-eremukoak baldin badira, estatutuetan edo fundazio-arauetan ezarritakoaren arabera.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da enpresa, erakunde horiekin duen loturaren izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratua gauzatzen den bitartean kaudimen hori eta bitarteko horiek izango dituela, eta aurkezten den entitateak ez duela kontratatzeko inolako debekurik, SPKLren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, ondore horretarako aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 69. artikuluaren arabera. Taldea osatuko duen enpresa bakoitzak honako hau guztia egiaztatu beharko du: jarduteko duen gaitasuna, kaudimen ekonomiko eta finantzazkoa eta gaitasun tekniko edo profesionala; horretarako, hurrengo klausulek ezartzen duten dokumentazioa aurkeztu behar izango du. Era berean, dokumentu pribatuan zehaztu beharko dituzte izenpetutako enpresen izen-abizenak eta zirkunstantziak, bakoitzaren partaidetza, kontratuaren indarraldian administrazioaren aurrean guztien ordezkaritza izango duen pertsona edo erakundea eta aldi baterako enpresa-elkarte modura formalki eratzeko konpromisoa adjudikazioduna baldin bada.Aipatutako agiria elkartea osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariek izenpetu behar izango dute.

5.2. Parte hartzeko eskaera aurkezteak eta, kasuan kasu, proposamena egiteak honako hau dakar:

.- Inolako baldintzarik gabe onartzea plegu honetako baldintzak, ezaugarrien taulako espezifikazioak, Baldintza Teknikoen Plegua eta kontratuko gainerako dokumentuak, oso-osorik eta salbuespen edo erreserbarik gabe.

.- Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako datu guztien zehaztasunari dagokionez, bai eta kontraturako prestazioen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzearenak ere.

.- Mahaiari eta kontratatzeko organoari baimena ematea Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko, bai eta Europar Batasuneko estatukideren baterako operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan daudenak ere.

Proposamenak aurkezteko, enpresa lizitatzaileak kokapena ezagutuko du, zuzeneko bisitaren edo beste baliabide osagarri batzuen bidez, eta badaki horiek alderdi fisikoan zer aukera dituzten, garraioari, instalazioei, ur-hustuketari eta obrak egiteko gainerako beharrei dagokienez. Ezaugarrien taulako E) atalean agertzen den zerbitzuak, eskaintzak aurkezteko epean, interesa duen edozein enpresari bere kokapena edo aplikatu beharreko dokumentazio eta araudiari buruzko informazioa emango dio. Ondorioz, lurzorua, obraren inguruabarrak, kontratua edozein baldintzatan, haren eranskinak edo legeria eta araudi aplikagarriak ez ezagutzea alegatzeak ez du enpresa kontratista hori betetzetik salbuetsiko.

Ezin izango dute prozeduran parte hartu kontratua prestatzeko dokumentuak edo baldintza teknikoak egiten parte hartu duten enpresei zuzenean edo zeharka lotuta dauden enpresek, ezta ere kontratazio hau prestatzeko kontratazio-organoari aholkularitza eman diotenek ere, betiere, parte-hartze horrek lehiakortasuna faltsutu ahal badu edo pribilegiozko tratua bat eman gainerako enpresa lizitatzaileekin alderatuta.

Obra eta instalazioen exekuzioa zaindu, gainbegiratu, kontrolatu eta zuzentzeko kontratuak ezin izango zaizkie esleitu obra-kontratuen esleipendun diren enpresa berberei, ez eta horiei lotutako enpresei ere.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.Era berean, ezin izango dute proposamenik sinatu beste enpresa batzuekin aldi baterako egindako elkarteek, banaka aurkeztu baldin badute.Arau horiek urratuz gero, automatikoki, ez da onartuko berak aurkeztutako proposamen bat ere ez.

6.- LIZITAZIOAN ONARTUAK IZATEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA

Prozedura honetan parte hartzeko eskaintzak eta eskatutako dokumentazioaren aurkezpena baliabide elektronikoak erabiliz burutu beharko da. Euskadiko Kontratazio publikoaren plataforman dagoen Lizitazio elektroniko sistemaren bidez.

Eskaintzen aurkezpenerako behar den informazio eta zehaztasun teknikoak, baita eskaintzen zifratua eta dataren baliozkotasuna, Euskadiko kontratazio plataforman daude (www.contratacion.euskadi.eus).

Eskaintza aurkezteko epea ezaugarrien kuadroaren H) atalean ezarritakoa izango da.

Behin eskaintza bat aurkeztuta ezin izango da inolaz ere kendu, justifikatutako arrazoia dela eta ez bada.

Enpresa lizitatzaileek bi artxibo (A eta B) aurkeztu beharko dituzte, honako agiriekin:

6.1 A artxiboa. aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko

Kontratatzeko gaitasunaren eta kaudimenaren aurretiazko egiaztapena, modu hauetako batean egingo da:

1) a) Kontratatzeko plegu honetan eskatzen diren eta legez eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena (1. eranskinean eskuragarri dagoen ereduaren arabera).

b) Kontratatzeko Europako Dokumentu Bakarra, ondo beteta.

Helbide honetan deskarga daiteke Kontratatzeko Europako Dokumentu Bakarra:

https: / / ec.europa.eu /tools/espd?lang=es

Esleipenerako proposamena jasotzen duen enpresa lizitatzaileak kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratua esleitu baino lehen, plegu honetan eskatutako agiriak aurkezteko moduan dagoela.

Enpresaria Sektore Publikoko edo Euskadiko lizitatzaile eta enpresa sailkatuen erregistroan izena emanda badago, SPKLaren 341 artikuluan zehaztutakoaren arabera, agiria hau nahikoa izango da egiaztagiri gisa; enpresak ez du agiri hau aurkeztu beharko baldin eta administrazioak berak eskuratu ahal badu doan.

Enpresariak Legearen 75 artikuluak zehazten duen moduan kaudimena eta baliabideak egiaztatzeko beste enpresa bat erabiltzen badu, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, Europako Agiri bakarrean agertzen den inprimakiari jarraituz.

ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTE gisa parte hartzen duten enpresei dagokionez, aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guzti-guztiek aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena, bai eta aldi baterako elkartea osatzen duten enpresen izena zein inguruabarrak adierazten dituen dokumentua eta horien partaidetza, elkartearen ahalordedun bakarraren edo ordezkariaren izendapena eta kontratuaren adjudikaziodun suertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 69.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunean onetsitako kontratazioko Europako dokumentu bakarrean araututako inprimakiarekin bat etorriz, enpresaren helbide bat edo hala badagokio, ABEEarena gehitu beharko da, bertan dagozkion jakinarazpenak egin ahal izateko.

2) Enpresa lizitatzaileek jakinarazpen eta komunikazioak bideratzeko datuak eman beharko dituzte, 6. eranskinaren arabera, honela enpresek emandako posta elektroniko helbidean jasoko dute elektronikoki egingo diren jakinarazpenen oharra.

2) Adjudikatu baino lehen eta ondoren, baita kontratuaren indarraldian ere, administrazioak enpresa adjudikaziodunak kontratatzeko duen gaitasunari buruz aurkeztutako dokumentazioaren A gutun-azalean sartutako dokumentuen edukia eta, hala badagokio, ezaugarrien taulan jasota dauden gauzatzeko baldintza bereziak betetzen direla egiaztatzeko dokumentuetako edukia benetakoa dela egiazta dezake. Hala, enpresak aurkeztutako datuak eta egoerak faltsuak badira, kontratua baliogabe daiteke enpresa kontratistari egotz dakiokeena ez betetzeagatik. Kasu horretan, osatu duen behin betiko bermea galduko du edo osatu ez bada edo zenbateko baliokidea osatzeko exijitzen ez bada, haren zenbatekoari dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko du. Horrez gain, kalte- galerengatik administrazioari

kalte-ordaina eman beharko dio, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen den kopuruan.

6.2.- B ARTXIBOA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIABIDE PERTSONAL ETA MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ETA BALIO-JUDIZIOAREN ARABERA HAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA. Artxibo honetan sartuko dira formula bidez ebaluatu ezin diren I.2) atalean ezarritako esleipen-irizpideak baloratzeko aukera ematen duten agiriak, bai eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusten diren gainerako agiriak ere.

C ARTXIBOA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN GAINERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA. Proposamen ekonomikoak lizitazioaren xede den lana emateko kontratuaren prezio gisa eskainitako balioa adieraziko du, eta partida independente gisa adieraziko da jasanarazi behar den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa, II. eranskineko ereduaren arabera. Artxibo honetan sartuko dira, halaber, ezaugarrien koadroko I.1) puntuan modu automatikoan ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko eskaintzak.

7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA

7.1.- KONTRATAZIO-MAHAIA Jasotako proposamenak aztertze aldera, ezaugarrien taularen K) atalean ezarritako moduan osatuko da Kontratazio Mahaia, kontratatzailearen profilean argitaratuko den datan eta orduan, eta enpresa lizitatzaileei horretarako eman duten posta elektronikoaren bitartez jakinaraziko zaie.

7.2.- PROPOSAMENAK AZTERTZEA Kontratazio Mahaiak aldez aurretik aztertuko du A gutun-azalen edukia, eta garaiz zein modu egokian aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak edo DEUC dokumentuak egiaztatuko ditu. Egiaztapen hori egiteko, gutun- azalak irekitzeko agindua emango du mahaiburuak. Mahaiak huts materialen bat ikusiko balu aurkeztutako agirietan, enpresa interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez hiru egun balioduneko epea emango die enpresa lizitatzaileek okerrak zuzendu ahalizateko.

Aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak edo DEUC dokumentuak egiaztatu eta, hala badagokio, zuzendutako akatsak edo ikusitako hutsak zuzendu ostean, Kontratazio Mahaiak lizitazioan onartuko diren enpresak zehaztuko ditu, eta beren- beregi egingo du baztertutakoei eta baztertzeko arrazoiei buruzko adierazpena.

Hala badagokio, B artxiboak irekiko ditu Kontratazio Mahaiak (Balio iritzien menpe dauden irizpideak). Aipatutako irekiera jendaurreko ekitaldian egingo da, Udaletxeko batzar gelan, eta deialdia enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie bitarteko elektronikoak erabiliz. B gutunazalaren irekiera burutu ondoren, dokumentazioa arduradunei igorriko zaie balorazioari ekiteko.

Gero, B artxiboko irizpideen balorazioa bukatu ondoren, formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideen C gutun-azala irekiko da, horretarako adierazten den egun eta orduan, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie baliabide elektronikoen bidez. Formula edo portzentajeen bidez ebaluatzen ahal diren esleipen irizpideak ezaugarrien taulako I) etaJ) atalean ezarritako formula eta ponderazioen bidez baloratuko dira.

Prozeduraren behar bezalako helburua bermatzeko, Kontratazio Mahaiak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan, eskaintzaileei legez eskatzen diren baldintzak eta kontratatzeko agirian xedatutakaok betetzen dituztela egiaztatzea eska dakieke.

Kasu horretan, eskaera jaso duten lizitatzaileek ezarritako, gehienez ere, hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko dute dokumentazioa. Aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo hutsak baldin badaude, gehienez ere, hiru laneguneko epea emango da akats horiek zuzentzeko.

Legez eta plegu honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla berresteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen denekoa izango da.

Aipatu epean dokumentazioa ez bada aurkezten, lizitatzaileak prozeduratik baztertuta geldituko dira.

7.3.- PROPOSAMENAK KALIFIKATZEA.- Proposamenetakoren bat aurkeztutako eta onartutako dokumentazioarekin bat etorri ezean, lizitaziorako tasa gaindituz gero, ezarritako eredutik nabarmen aldenduz gero, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat egonez gero, eta eskaintzaileak proiektua bideraezin egiten duen akatsen bat duela onartuz gero, Kontratazio

Mahaiak baztertu egingo du proposamena ebazpen arrazoitu baten bidez (Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 84. artikulua).

Bereziki, eskaintzatik baztertzeko arrazoia izanen da ez betetzea beste gutun-azal batean aurkeztu beharra, balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideei buruzko agiriak.

7.4.- BAXUEGIAK DIREN ESKAINTZAK.- Eskaintza baxuegitzat joko dira ezaugarrien taulako M) atalean zehaztu diren parametroekin bat datozen kasuetan daudenak.Horri dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 149. artikulua eta Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

Kontratazio Mahaiak baxuegiak izan daitezkeen eskaintzak identifikatzen baditu, aurkeztu dituen enpresa lizitatzaileari edo enpresa lizitatzaileei eskatu beharko die, epe nahikoa emanez, horiek justifikatu eta arrazoiz banakatzeko eta zehatz-mehatz arrazoitzeko prezioen, kostuen edo beste edozein arrazoiren prezio baxua, eskaintza baxuegia dela definitzeko hori oinarri hartuta. Horretarako, beharrezkoak diren dokumentuak eta informazioa aurkeztu beharko dira.

Kontratazio Mahaiak enpresa lizitatzaileak epe barruan emandako dokumentazio eta informazio guztia ebaluatuko du, eta kontratazio-organoari onartzeko edo baztertzeko egindako proposamena emango dio, modu arrazoituan.

Kontratazio-organoak, enpresa lizitatzaileak egindako justifikazioa eta nahitaezko txosten teknikoak aintzat hartuta, onesten baldin badu bildutako informazioan ez dela ondo azaldu enpresa lizitatzaileak proposatutako prezio baxua edo kostuak, eta, horrenbestez, eskaintza ezin izango dela bete balio baxuegiak sartu direlako. Orduan, lizitaziotik kanpo geratuko da. Orokorrean, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak baztertuko dira, ikuspegi tekniko, ekonomiko edo juridiko batetik hipotesi edo praktika desegokietan oinarrituta badaude.

7.5.- PROPOSAMENAK EBALUATZEA.- Kontratazio Mahaiak, proposamenak ebaluatzeko, plegu honetako ezaugarrien taulako I) eta J) atalean garrantzi eta haztapen txikienetik handienera jaso diren balorazio-irizpideen bitartez ebaluatuko ditu, eta, horretarako, egoki jotzen duen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, eta kontratazio-organoari egoki deritzon proposamena egingo dio.

Bi proposamen edo gehiago eskaintzen balio irizpideen ikuspegitik abantailatsuen gisa berdinduta badaude, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 147.2. artikuluan jasotako gizarte-irizpideak aplikatzen dituen enpresari adjudikatuko zaio, eskaintzak aurkezteko epea amaitzerakoan adierazitakoak.

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATUTAKO ENPRESAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

8.1.- Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 150. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurkeztutako proposamenak aurkeztuko dizkio kontratazio-organoari, beherantz sailkatuta, baldin eta baztertu ez badira edo baxuegiak direla jo ez bada. Gainera, adjudikazioaren proposamena eta akta helaraziko zaizkio.

8.2.- Adjudikazio-proposamena egingo zaion enpresa lizitatzaileak kontratazio-organoari egiaztatu beharko dio, kontratua adjudikatu orduko, eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla, kaudimen eta gaitasunari dagokionez, Administrazio Berezien Klausulen Pleguko 8.3. artikuluan eskatutakoarekin bat etorriz.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da administrazioarekiko kontratuak egin ahal izateko nahitaezko gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla eta kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatu ahal izateko une erabakigarria, eta kontratua egiten den unera arte iraun behar dute.

Aurrekoa betetze aldera, zerbitzuak eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, 140. artikuluaren 1. apartatuko a) letratik c) letrara jaso diren inguruabarrak justifikatzeko dokumentazioa aurkez dezan, bai eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela justifikatzeko dokumentazioa ere (edo kontratazio-organoari horren egiaztapena zuzenean lortzeko baimena eman), bai enpresa lizitatzailearena, bai gaitasunak errekurritzen zaizkien enpresena, kontratua gauzatzeko erabili edo esleitzea konprometitu diren baliabideak benetan dituela egiaztatzeko eta plegu honetako 9. klausulan jasotako terminoetan egokia den behin betiko bermea eratu izana egiaztatzeko.

8.3.- 140. artikuluaren 1. apartatuko a) letratik c) letrara aipatzen diren inguruabarrak justifikatzeko dokumentazioari dagokionez, enpresa lizitatzaileak edo gaitasuna errekurritzen zaizkien beste enpresek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskaera bere izenean edo ahaldun gisa aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardun bada, notario-ahalordea. Erakunde honek ahalordea askietsiko du aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko prozeduran zehar.

b)Pertsona juridikoak diren enpresen egiteko gaitasuna, eratzeko eta, hala badagokio, aldatzeko eskrituraren bitartez egiaztatuko da, baldin eta eskakizun hori aplikatzekoa den merkataritza legeriaren arabera exijitzekoa bada.Hori beharrezkoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

c) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala eta, hala badagokio, enpresa-gaitze edo gaitze profesionala justifikatzen dutenei, ezaugarrien taulako F) atalean adierazi direnak, baldintzak ezarriko zaizkie bai legearen
87. eta 90. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, bai eska daitekeen gutxieneko sailkapenaren eta kategoriaren taldearen edo azpitaldearen terminoetan, betiere kontratuaren xedea indarreko sailkapen taldeetako edo azpitaldeetako baten sailkapen eremuak barne hartzen badu, horretarako kontratua CPV kodea aintzat hartuta.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda duten enpresa lizitatzaileak b) eta c) ataletan adierazitako dokumentazioa aurkeztetik salbuetsita egongo dira.Salbuespen hori ziurtagiriaren bitartez egiaztatu ahal diren gaitasun eta kaudimenaren inguruabarrak egiaztatzeko dokumentuei dagokionez baino ez da aintzat hartuko.

Kontratatzeko debekuak ez izateari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko inguruabarrak eskaintza aurkezten den azken egunean bete beharko dira, eta kontratua egin arte iraun.
Aldi baterako elkartearen baitan lehiatu nahi duten enpresek banan-banan aurkeztuko dute aurreko ataletan eskatzen den dokumentazioa.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 65-76 eta 95. artikuluetan ezarritakoaren ondoreetarako, Kontratazio Mahaiak enpresari eskatu ahal izango dio aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko azalpenak emateko edo beste dokumentu osagarri batzuk aurkezteko. Hori bost egun balioduneko epean egin beharko du, errekerimendua egiten denetik zenbatzen hasita.

8.4.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

.- Enpresa lizitatzaileak zerga-helbidea duen lekuko zerga-administrazioak igorritako ziurtapena, bai eta zergari lotutako jarduerak egin izan diren zerga- administrazioetakoak ere, zerga-betebeharrak betetzearekin indarrean dagoela egiaztatzen dutenak.Merkataritzakoak ez diren sozietateak edo nortasun juridikorik ez duten entitateak direnez, ziurtagirietan sozietatearen, entitatearen edo establezimenduaren titularra edo titularrak aipatuko dira.

.- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria entitate horri ordaindu beharreko kuotak egunean daudela egiaztatzeko.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioa indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkezten dutenak salbuetsita egongo dira ziurtapen horiek aurkezteaz indarraldiak iraun bitartean eta ziurtagirian jasota dauden inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean. Enpresak berariaz adierazi beharko du hori kontratua sinatzeko dokumentua, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikula baja eman ez izanaren erantzukizuneko adierazpena izan ezik.

8.5.- Aurreko 8.2. puntuan aipatzen den errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada, enpresa lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta, halakoan, dokumentazio berdina hurrengo enpresa eskaintzaileari eskatuko zaio. Xede horrez, eskaintzen sailkapen-ordenari erreparatuko zaio. Horrelakorik gertatu ezkero, erretiratutako enpresari oinarrizko lizitazio prezioaren % 3ari dagokion zigorra ezarriko zaio.

9.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Kontratazio prozeduran zehar lurretako Udalak egin beharreko jakinarazpen eta notifikazio guztiak bitarteko elektronikoak erabiliz egiogo dira. Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez. Jakinarazpen eta komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, lizitatzaileek abisua jasoko dute horretarako beren beregi emandako helbide elektronikoan.

10.- BEHIN BETIKO BERMEA

10.1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen enpresa lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren % 5eko gehieneko bermea jarriko du kontratazio-organoaren esku, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo utzita, ezaugarrien taularen N) atalean jasotakoaren arabera.

10.2.- Administrazioak aipatutako enpresa lizitatzaileari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen unetik aurrera zenbatzen hasita, dagokion behin betiko bermea osatu izana egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko.

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, baldintza hori betetzen ez badu, administrazioak ez du haren aldeko adjudikazioa egingo, eta 150.2 artikuluko azken lerrokadan adierazitakoa aplikatuko da.

10.3.- Bermea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 108. artikuluan ezarritako moduen arabera osatu ahal izango da, APKLAOren 55. artikuluan eta hurrengoan ezarritako baldintzei jarraikiz.
Behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluak aipatutako kontzeptuak estaliko ditu. Bermeak itzultzeko eta deuseztatzeko SPKLren 111. artikuluan eta APKLAOren 65. artikuluan ezarritakoa beteko da.

11.- ADJUDIKATZEA ETA JAKINARAZTEA

11.2.- Kontratua adjudikatu den enpresa hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, esleipena gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratua adjudikatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak hainbat direnean edo irizpide bakarra egon baina bizitza-zikloaren kosturik txikiena erabiltzen denean, adjudikazioa egiteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenen gutun-azalak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, non eta ezaugarrien taularen O) atalean ez den beste epe bat ezarri.

Eskaintza gutun-azal batean baino gehiagotan badago, eta egintza independentetan ireki beharko balira, aurreko epea azken gutun-azala irekitzen den unetik aurrera hasiko da.

11.3.- Administrazioak, beste alde batetik, kontratua eskaintzarik baxuenari adjudikatzeko eskumena izango du, bai eta lizitazioa hutsik geratu dela esateko ere, pleguetan ezarritako irizpideen arabera onargarria ez den eskaintza edo proposamenik ez dagoenean.

Hala eta guztiz ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 152. artikuluan xedatutako terminoen arabera, kontratua egin aurretik adjudikatzeari uko egin ahal izango dio interes publikoko arrazoiengatik edo izapidetutako prozedurak amaitu, zuzendu ezin diren akatsak dituenean.

11.4.- Adjudikazioa arrazoitua izan beharko da, enpresa hautagai edo lizitatzaileek adieraziko zaie, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

Interesdunei adjudikazio-erabakiaren kontra behar bezala oinarritutako errekurtsoa jartzeko aukera emango dien informazioa jaso beharko du jakinarazpenak. Bereziki, honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Baztertutako enpresa hautagaiei dagokienez, hautagaia baztertzeko arrazoien azalpen laburra.

b) Adjudikazio prozeduratik baztertutako enpresa lizitatzaileei dagokienez, labur-labur azalduko zaio zein izan diren haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, eta enpresa lizitatzaile guztiei esleitutako balorazioak zehaztuko dira, adjudikaziodunarenak barne.

c) Edonola ere, enpresa adjudikaziodunaren izena, eta enpresa adjudikaziodun horren eskaintza hori lehentasunez aukeratu izanaren ezaugarriak eta abantailak, gainerako enpresa lizitatzaileen eskaintza onartuen aldean Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, legeztatzeko epea azalduko da, SPKLak 153.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.5.- Aurkeztutako proposamenak, bai onartutakoak bai zabaldu barik ukatutakoak zein zabaldu ondoren ez onartutakoak, espedientean artxibatuko dira.Kontratua adjudikatu ostean eta errekurtsoak jartzeko epeetan ez bada holakorik ipini, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak interesdunen esku geldituko dira.

Enpresa lizitatzaileek dokumentazio hori sei hilabeteko epean eskatzen ez badute, suntsitu ahal izango da.

IV. KONTRATUA FORMALIZATZEA:

12.0.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK

Esleipenaren jakinarazpena jaso izanaren adierazpena egin ondoren, enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, kontratuaren polizaren kopia eta ezaugarrien taulako P) atalean adierazitako aseguru-kontratuen primaren ordainagiria aurkeztu beharko ditu. Enpresak kontratua egin ondoren, bere kontura mantenduko du obra egin eta bermatu bitartean.
Aseguratutako mugak Administrazioak obra bakoitzean zehazten dituenak izanen dira, obra horren berezitasunen, eraikin mugakideen, lehendik dauden ondasunen eta egoki iritzitako beste edozein inguruabarren arabera.
Kontratua indarrean dagoen bitartean, organo kontratugileak aseguru horiei dagokien dokumentazioa aurkezteko eska diezaioke enpresa kontratistari, edo polizen kopia edo horien ziurtagiria emateko. Era berean, primen ordainketa egunean duela egiaztatu beharko du, eta, gainera, primak ordaintzeko betebeharra izango du. Hala egin ezean, organo kontratugileak obra-ziurtagirien ordainketa eta obrak jasotzeko epea eten ahal izango ditu, eta, hala badagokio, berme-epearen zenbaketaren hasiera eten egingo du. Etenaldia ez da kalte-ordainetarako kontatuko, ez-betetzeagatiko gainerako erantzukizunak aparte utzi gabe.

12.1.- Administrazioak egiten dituen kontratuak lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan gauzatuko dira, eta agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikotzat jodadin, dagozkion gastuak haren kargura izanik. Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte batí adjudikatzen bazaio, 11.2. eta 3. ataletan ezarritako epe barruan egiaztatu beharko dute eskritura publikoaren bitartez osatu dutela, eta kontratuaren iraupen bera izango duela, amaitu arte. Gainera, aldi baterako enpresa-elkarteari esleitutako IFZ aurkeztu beharko dut.

12.2.- Kontratuaren kontra kontratazioaren arloan errekurtso berezia jar badaiteke, enpresa lizitatzaileei adjudikazio-jakinarazpena bidali eta hamabost lanegun igaro baino lehen ezingo da legeztatu.

Kontratazio organoak agindeia egingo dio enpresa adjudikaziodunari eskakizuna jaso eta gehienez bost eguneko epean kontratua gauzatu dezan, baldin eta aurreko epea igarotakoan kontratua gauzatzea etenaraziko duen errekurtsorik aurkeztu ez bada. Modu berean jokatu beharko da errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etena kentzen duenean

12.3.- Gainerako kontratuetan, kontratua hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, enpresa lizitatzaileei adjudikazio jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion kausengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, administrazioak lizitazio-oinarri den aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko dio, BEZ kanpo, zehapenaren kontzeptuan, eta, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen aurka egingo da eraginkor, eratuz gero, SPKLren 71. artikuluko 2. ataleko b) letran ezarritakoa gorabehera.

Kasu horretan, kontratua enpresa lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzetan sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera. Aldez aurretik, plegu honetako 8. klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta aurreko ataletan ezarritako epeak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez gauzatzeko arrazoiak administrazioari egotzi ahal bazaizkio, atzerapenak eragin ditzaketen kalte eta galerengatik kalte-ordaina emango zaio enpresa kontratistari.

12.6.- Ezin izango da kontratua betetzen hasi, aurretiaz gauzatu ez bada, larrialdiko izapidetzean egiten diren espedienteetan jasotako kasuetan izan ezik.

V. KONTRATUA GAUZATZEA

13.- KONTRATUA GAUZATZEA

13.1.- GAUZATZEA ZUZENTZEA ETA IKUSKATZEA Kontratuaren zuzendaritzaz arduratuko den pertsonak titulazio egokia eta nahikoa izan beharko du, eta zuzenean arduratuko da hitzartutakoa ondo betetzen dela egiaztatzeaz, eta hori koordinatzeaz eta zaintzeaz.
Zereginak egiteko, bere agindupean dauden pertsonak izango ditu, eta haien titulu profesionalen edo berariazko ezagutzen arabera garatuko dituzte jarduerak. Bestalde, kqntratuaren zuzendaritzako kide izango dira.

Administrazioak jakinaraziko dio enpresa kontratistari zein den kontratazio-organoak izendatu duen zuzendaritza, eta zuzendaritza horrek, halaber, laguntza emango duten langileen berri emango dio. Aldaketak idatziz jakinaraziko zaizkio enpresa kontratistari.

SPKLko 216. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, azpikontratista edo hornitzaileei dagokienez ordainketa-epeak betetzea kontratua betearazteko baldintza izango da.
Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara burutuko da.

13.2.- KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

113.2.1- Obrak egitea. Obrak plegu honetan ezarritako klausulei eta Administrazioak onetsitako proiektuari eta obraren zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideei hertsiki loturik burutuko dira.

Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, enpresa kontratista da eraikuntzan antzematen diren akatsen erantzulea.

13.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa esleipenduna arduratuko da egiten dituen lanen eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaz, bai eta kontratuaren exekuzioan gertatzen diren hutsegiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio desegokiek Administrazioari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioez ere. Bere kontura izanen da hirugarrenei eragindako kalteen ordaina.

13.2.3.- Gauzatzeko epeak. Obra egiteko epe orokorra eta epe partzialak, halakorik bada, ezaugarrien taulako C) atalean ezarritakoak izanen dira.

Exekuzio epeak zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen. Tramitazioa presakoa dela deklaratzen bada, kontratua gauzatzen hasteko epea ez da hilabetekoa baino luzeagoa izanen, formalizatzen denetik hasita. Epe hori gaindituz gero, kontratua suntsiarazi ahal izango da, non ez den atzerapena administrazio kontratugilearekin eta enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu, eta hala jasotzen bada ebazpen arrazoituan.

Kontratuaren epea luzatu ahal izateko, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen inguruabarrak eta baldintzak bete beharko dira.

13.2.4.- ZUINKETA EGIAZTATZEA. Kontratuaren exekuzioa zuinketa egiaztapen ekintzarekin hasiko da, kontratua formalizatu eta gehienez ere hilabeteko epean.

Obren zuinketa enpresa lesleiden hartzailearen aurrean egiaztatuko da, edo bere ordezkariarena, SPKLren 237. artikuluarekin eta APKLEOren 139., 140. eta 141. artikuluekin bat. Ezin izango da obra hasi zuinketa egiaztatzeko akta egin gabe edo bertan funtsatutzat jotzen diren erreserbak jasota geratzen direnean; kasu horretan, bertan behera utziko da obraren hasiera edo behin betiko etetea erabakiko da.

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak izango dira zuinketa egiaztatzea arrazoirik gabe atzeratzea eta administrazioak obren hasiera lau hilabetetik gora etetea.
Halaber, ezin izanen da obra hasi segurtasun eta osasun plana aldez aurretik onetsi gabe.

13.3.- EZINBESTEKO KASUAK Ezinbesteko kasuetan, baldin eta enpresa kontratistak zuhurtziagabe jardun ez badu, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du hari egiten zaizkien kalteengatik.

Ezinbesteko kasutzat joko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 239. artikuluan ezarritakoak, eta APKLAOren 146. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

13.4.- ZEHAPENAK AKATSENGATIK, NEURRI BATEAN EZ BETETZEAGATIK ETA ATZERAPENAGATIK Kontratuaren xede den prestazioa akatsekin ematen bada edo kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak eta konpromisoak betetzen ez badira, eta enpresa kontratistak hari egotz dakiokeen arrazoiengatik kontratuan definitutako prestazioak neurri batean betetzen ez baditu, ezaugarrien taulako Q) atalean jasotako zehapenak ezarriko dira.

Enpresa adjudikaziodunak derrigorrez bete beharko ditu administrazioak kontratua gauzatzeko ezarritako epea eta epe partzialak.

Aipatutako eperen bat amaitutakoan enpresa kontratistari berari lepara dakizkiokeen arrazoiengatik berandutu bada, administrazioak kontratua suntsitu ahal izango du, edo bestela, zigor ekonomikoak ezarri ahal izango ditu.Ezaugarrien taulako Q) atalean ezarritako zenbatekokoak izango dira.

Atzerapena enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik sortuz gero, SPKLren 195.2. artikuluak ezarritakoari lotu behar izango zaio.Nolanahi ere, enpresa kontratistak berandutzea eragiteak ez du beharrezko egingo administrazioaren aldez aurretiko interpelazio edo intimazioa.

Zehapenak jartzea kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta erabakitzeko prozesuan honako jarduketa hauek barne hartuko dira:

a) Hautemandako ez-betetzeak identifikatzen dituen eta zehapenaren zenbatekoa proposatzen duen kontratuaren arduradunaren txostena.
b) Entzunaldia kontratistari, hamar (10) egun balioduneko epean, egokiak deritzon alegazioak egin ditzan.
e) Txosten juridikoa, kontratista aurka agertzen denean.
d) Bilketa egiteko modua zehazten duen kontratazio-organoaren ebazpena.

13.5.- KALTEAK ETA GALERAK.

Iurreta
Udaletxeko Udala

Gauzatzea partzialki betetzen ez denean edo behar bezala betetzen ez denean edo berandutu egiten denean, eta horrek zehapenik aurreikusita ez badauka edo egonda ere udalari eragindako kalteak estaltzen ez badira, administrazioak berak enpresa kontratistari kalte eta galerengatiko ordainak eskatuko dizkio.

13.6.- ENPRESA KONTRATISTARENTZAKO ABONUAK. Kontratuaren prezioa ordaintzeko, hilean egindako lanei dagokien fakturak aurkeztuko dira. Banku-transferentzia bitartez ordainduko dira aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro ondoren.
25/2013 Legearen arabera faktura elektroniko bat egin eta igorri beharko duten hornitzaileen kasuan; lurretako Udalaren hornitzailearen atariaren bitartez aurkeztu beharko dute, formatu egituratuan eta sinadura elektroniko aurreratuaren bitartez sinatuta, aitortutako ziurtagirian oinarritzen dena.Hori egin behar ez dutenen eta 5.000 eurorainoko fakturen kasuan, hornitzaileen atarian aurkeztu ahal izango dituzte fakturak edo, bestela, udal honetako Sarreren Erregistro Nagusiaren bitartez. Fakturek azaroaren
30eko 1619/2012 Errege Dekretuan eskatutako betekizunak beteko dituzte eta, gutxienez,
faktura igortzen duen eta hartzailearen IFZ, izenak, abizenak edo izen soziala eta fakturaren data eta zenbakia, bai eta ondasunaren edo zerbitzuaren deskribapena, zerga-tasa eta zerga-kuota ere. Hala badagokio, transferentzia egiteko bankuko kontuaren zenbakia jasoko da.

Faktura elektronikoetan, besteak beste, honako datu hauek jasoko dira:

Kontabilitate-bulegoa: L01489102
Bulego kudeatzailea: L01489102
Zein unitatek izapidetzen du: L01489102

Administrazioak prezioa emandako zerbitzuen kontratuan xedatzen denari buruzko adostasuna egiaztatzen duten dokumentuak onetsi eta hurrengo hogeita hamar egunean ordaindu beharko du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 210. artikuluaren 4. atalean ezarritakoa gorabehera, eta, atzeratuz gero, kontratistari,
hogeita hamar eguneko epe hori betetzen denetik, berandutze-interesak eta kalte- ordaina ordaindu beharko zaizkio, kobrantza-kostuengatik, Merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako baldintzetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 198.4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 199. eta 200. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz baloratuko dira lanak.

13.7.- ENPRESA KONTRATISTAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK.Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebehar orokorrez gain, honako berariazko betebehar hauek existituko dira:

a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI BURUZ. Kontratistak derrigorrez bete beharko ditu ingurumenaren, gizartearen eta lanaren inguruan indarrean dauden xedapenak, hau da, Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo estatua ingurumenari, gizarteari eta lanari buruzko nazioarteko zuzenbideari lotzen dutenetan ezarri direnak, batik bat, SPKLren V. eranskinean ezarri direnak.

Hain zuzen ere:

1. Egingo diren prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean, dagozkien lan-ordenantzaren eta hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko dira.

2. Enpresak derrigorrezkoak edo beharrezkoak diren lan-neurri guztiak hartuko ditu lan-arriskuak ekiditeko.Era berean, lan-arriskuak prebenitzeari buruzko betebeharrak beteko ditu, indarrean dagoen araudian ezarritakoak, eta kontratatutako jarduera hasi baino lehen honako betebehar hauek betetzen dituela egiaztatuko du:

   - Kontratatutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta prebentzio jardueraren planifikazioa.

   - Kontratua egiteko erabiliko diren langileei prebentzioari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.

   - Kasuan kasu beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak banatu izanaren ziurtagiria.

3. Enpresak lan batzuk azpikontratatzen baditu, azpikontratatutakoei aurreko betebeharren ziurtagiriak eskatu beharko dizkie, eta kontratatzen duen administrazioari eman.Enpresek, halaber, segurtasuneko eta osasuneko langile koordinatzaileei egindako azpikontratazioen berri emango diete lanak egiten hasi baino lehen.

4. Lanak egin bitartean beharginek istripuren bat edo edozein motatako kaltea jasaten badute, indarreko arauetan xedatuta dagoena beteko du bere erantzukizunpean. Erantzukizun horrek ez du inola ere Administrazioa ukituko

5. Ezaugarrien taulan hala zehazten denean, legezko arau batean, eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko hitzarmen batean edo hitzarmen kolektibo batean ezarri delako, enpresa adjudikaziodunak enplegatzaile gisa subrogatu beharko da, hari dagokion langileen lan- harremanetan.

b) GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN GASTUAK Enpresa kontratistaren kontura izango dira zuinketa, zuzendaritza, ikuskaritza eta likidazioa egiaztatzeko lan fakultatiboak eta aplikatu beharreko beste edozein lan egiteko tasak, indarrean dauden xedapenen arabera, horiek adierazten duten moduan eta zenbatekoan.

Enpresa esleipendunak udal-baimenak kudeatu behar ditu, obretarako udal-lizentzia izan ezik, aldamioak, pasabideak, hesiak eta abar jartzeko. Enpresa kontratistaren kontura izango dira bai horien kudeaketa eta tasek dakartzaten gastuak, bai obrak egiteko gastuak.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira kudeaketak egitea, gastu, tasa, eta abar ordaintzea, eta erakunde eskudunetan aurkeztu beharreko proiektuak idatzi eta ikus-onestea, funtzionamenduaren alta eta baimena, sare eta zerbitzuekiko lotuneak, behin-behineko hartuneak eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztaturako behar den guztia lortzeko.

Enpresa kontratistari dagokio energia elektrikoa, ura, telefonoa eta obrak eta instalazioak egiteko behar diren zerbitzu guztiak ematea. Horiek indarra duen araudia bete beharko dute.

c) SEINALEAK. Enpresa kontratista behartua dago obrak iragartzeko kartelak bere kontura jartzera, bai eta obrarako sarbidea, lanak egiten diren eremuko zirkulazioa eta arriskugarri

gerta daitezkeen puntuak adierazteko seinaleak ere. Instalatu beharreko kartel guztiak elebitan idatziko dira: euskeraz eta gazteleraz, euskaraz dagoena narbarmenduta agertuko delarik.

d) AGINDUEN LIBURUA. Enpresa kontratista behartua dago agindu-liburua obrako unean bertan gorde eta eskura izatera. Obren zuzendaritza fakultatiboaren eta kontratuaren arduradunaren eskura egonen da, eta haiek bisitetan, gertaeretan eta obrak dirauen bitartean gertatzen diren aginduetan adieraziko dute.

Enpresa kontratistak jarraibide horiek hartu izanaren agiria sinatu beharko du bere kabuz edo bere ordezkariaren bidez.

e) HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak eta egon daitezkeen enpresa azpikontratistek, kontratua gauzatu bitartean, bi hizkuntzen koofizialtasuna hartu beharko dute kontuan, eta jarduera elebitasun-irizpideen arabera eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz egingo dute, Euskal Autonomía Erkidegoaren Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean eta Euskal Autonomía Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen 86/1997 Legean ezarritakoaren arabera.

13.8.- BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK Enpresa adjudikaziodunak administrazioak egiten dizkion errekerimenduak beteko ditu, eta kontratua gauzatzeko orduan, kontratuari lotuta dauden baldintza berezi sozialak, etikoak, ingurumenekoak edo beste mota batekoak aplikatuko ditu, baldin eta ezaugarrien taulako S) atalean zehaztu badira.

13.9.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA Kontratuak lagatzeari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 214. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.Enpresa adjudikaziodunak hirugarrenekin kontratuaren burutzapen partziala kontratatuz gero, hori guztia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 215. artikuluak ezarritakoari lotuko zaio; halaber, enpresa azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeko, 216. artikuluak ezarritakoari lotu behar izango zaio
Enpresa lizitatzaileak beren eskaintzan azpikontratatzea aurreikusten duen kontratuaren zatia adieraziko du, zenbatekoa eta izena edo enpresa-profila, hura betearazteko aginduko dien enpresa azpikontratisten lanbideko gaitasuneko edo gaitasun teknikoko baldintzei dagokienez zehaztuta.
Edonola ere, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduen, hura betearazten hasten denean, kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa, eta prestazioaren zer alde azpikontratatu nahi duen ordezkariak, eta hark dauzkan baliabide teknikoen eta giza baliabideen eta bere esperientziaren bidez hura betearazteko gaitasuna duela behar bezala justifikatuko du. Gainera, egiaztatu beharko du ez daukala kontratatzeko debekurik, bai eta kontratu nagusia betetzen den bitartean sor daitekeen edozein aldaketari eta enpresa azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman ere.

13.10- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau bakarrik aldatu ahal izango da interes publikoko arrazoiengatik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 207. artikuluan araututako prozedurarekin.
Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitzen dituen aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, salbu eta 205. artikuluan jasotako kontratu- aldaketaren kasuak, bakarrik izango baitira derrigorrezkoak zenbatekoaren aldaketak, isolatuta edo elkarrekin, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko hogei gainditzen ez badu, BEZ kanpo.

Iurreta
Udalaren Elektronikoko Udala

13.11.- KONTRATUA ETETEA Eteteari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 208. artikuluan eta Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 103. artikuluan xedatuakoa hartuko da aintzat.

Neurri batean eteteari edo erabat eteteari dagokionez, behin-behinean edo behin betiko, dagokion eteteko akta idatziko da, non jasota geratuko den etetea gauzatzeko administrazioak hartutako erabakia, inguruabarrak eta kontratua gauzatzeko egitatezko egoera. Hain zuzen ere, definituko da horren ondorioz kaltetutako prestazioaren zatia, zatiak edo prestazio osoa.

Etetea erabaki eta gero, administrazioak horren ondorioz pairatutako kalteen kopurua ordainduko dio enpresa kontratistari, SPKLren 208. 2. artikuluan adierazitako arauekin bat etorriz.

13.12.- OBRA HARTZEA Hartzea aipatutako legearen 210. eta 311. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da.

13.12.1.- Kontratua burututzat joko da enpresa kontratistak kontratuaren xedea osorik bete badu, betiere, kontratuko baldintzen arabera eta administrazioaren nahierara.

Enpresa kontratistak obren zuzendaritza fakultatiboari idatziz jakinaraziko dio obrak amaitzeko aurreikusitako eguna. Idatzizko jakinarazpena egin ondoren hartuko da obra, eta bukatu eta hurrengo hilabetean, gehienez ere. Harreraren akta egingo da eta ekitaldira aurkezten diren pertsona guztiek sinatuko dute. Aktan jasoko da obrak egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera daudela. Kasu horretan, obren zuzendaritza fakultatiboak jaso dituela ulertuko du eta berme epea hasiko da. Obrak jasotzeko moduan ez daudenean, hala jasoko da aktan, eta obren zuzendaritza fakultatiboak antzemandako akatsak adieraziko ditu eta behar diren jarraibideak zehaztuko ditu, horiek konpontzeko epea ezarriz. Epe hori iraganik, enpresa kontratistak ez badu halakorik egin, beste epe bat eman ahal izango zaio, luzaezina, edo kontratua suntsiarazi.

13.13.- BERME EPEA. Harrera-aktaren datatik aurrera, URTEBETEKO berme-epea hasiko da kontatzen, ezaugarrien koadroko W) atalean agertzen den bezala. Berme-epean, enpresa kontratista izango da obran ager daitezkeen akats edo akatsen erantzulea, eta hura gorde eta kontserbatu beharko du.

13.14. LIKIDAZIOA Kontratuaren berme-epea amaitu baino hamabost egun lehenago, kontratuaren zuzendaritza fakultatiboak obraren egoerari buruzko txostena prestatuko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Txostena aldekoa bada, enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izanen, ezkutuko akatsengatik izan ezik, eta bermea itzuli edo kitatuko da.
Hala ere, berme-epea amaitu ondoren, eraikuntza-akats ezkutuak direla eta, obra hondatzen bada, enpresa kontratistak kontratua ez betetzeagatik, enpresa kontratista izango da kalteen erantzulea, obra jaso eta hamabost urteko epean.

13.15.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA Kontratua Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. eta 245. artikuluetan adierazten diren kasuetan suntsiaraziko da, eta kontratazio-organoak ebatziko du ofizioz edo enpresa kontratistak eskatuta, kontratistari entzunaldia bermatzen dion prozeduraren bidez eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 212., 213. eta 246 artikuluetan xedatutako ondorioekin.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi denean, behin betiko bermea konfiskatuko da; horrek ez dio inolako kalterik eragingo administrazioari eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina ordaintzeko beharrari, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duen guztian.

13.16.- KONFIDENTZIALTASUNA. Plegu honetako xedea emateko orduan, administrazioaren titulartasuneko fitxategietan dauden datu pertsonalak ikusi behar badira, entitate adjudikaziodunak datu horiek tratatuko dituen arduradun gisa jardungo du, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren

5eko 3/2018 Lege Organikoaren 6. artikuluan eta garatzeko araubidean xedatutakoa aintzat hartuta.Hirugarrenek datu pertsonalak tratatzea nahitaezko konfidentzialtasun klausulen bitartez arautuko da.

Era berean, kontratazio-organoek ezin izango dute enpresek isilpekotzat jotako informazioa ezagutarazi, hargatik eragotzi gabe adjudikazioaren publizitateari buruz eta enpresa hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz lege honetan ezarritako xedapenak. Isilpekoak izango dira, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen isilpeko alderdiak.

14. KLAUSULA: DATUAK BABESTEA

1. Kontratuaren objekturako sarbide duen adjudikaziodun enpresak diskrezio zorrotzarekin gorde eta isilpetasunarekin tratatuko ditu izaera pertsonaleko datuak. Horrela bada, ez da datuen komunikaziotzat joko , abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 6. artikuluan jasotakoa betetzen bada. Dena den, Lege horretako 6.1 artikuluko aurreikuspenak idatziz jaso behar dira, nahiz eta tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko dituela datuak, datu horiek ez dituela aplikatu edo erabiliko kontratu horretan jaso gabeko xedeekin eta datu horiek ez dizkiela komunikatuko beste pertsona batzuei, ezta datuok gordetzeko ere.

2. Behin kontratu-prestazioa beteta, izaera pertsonaleko datuak suntsitu edo ardura duen erakunde kontratugileari edo tratamenduaren arduradunari itzuli beharko zaizkio.

3. Trataeraren ardura duen hirugarrenak datuak behar bezala blokeatuta izango ditu, trataeraren ardura duen erakundearekin duen harremanetik erantzukizunak haintzat hartuta.

4. Halaber, 2016/679 (EB) Erregelamenduko 28.3 artikuluarekin bat etorriz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, adjudikaziodun enpresak:
“a) Arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak, baita hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen diren datu pertsonalen kasuan ere, noiz eta ez dagoen horretara behartuta eragileari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez; kasu horretan, tratamenduaren aurreko lege-betebehar horren jakintun ipiniko du eragileak Arduraduna, salbu eta zuzenbide horrek debekatu egiten badu, interes publikoko arrazoi sendoak direla medio.
b) Bermatuko du datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonek konpromisoa izango dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko edo konfidentzialtasunari buruzko estatutu-betebehar baten mende daudela.
c) 32. artikuluaren arabera beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu.
d) Beste tratamendu-eragile batengana jotzeko 2. eta 4. Zenbakietan adierazitako eskakizunak errespetatuko ditu.
e) Tratamenduaren nolakotasuna kontuan hartuta, laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari, ahal den guztietan, neurri tekniko eta antolakuntzakoen bitartez, III. Kapituluan ezarritako interesunen eskubidak egikaritzea helburu duten eskabideei erantzuteko arduradunak duen betebeharra konplitzeko.
f) Laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari 32.tik 36.ra bitarteko artikuluak betetzen direla bermatzeko, kontuan hartuta tratamenduaren nolakotasuna eta tratamendu-eragilearen esku dagoen informazioa.

g) Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren arabera, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan, eta dauden kopiak ezabatuko ditu, noiz eta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ez duen datu pertsonalak kontserbatzea eskatzen.

h) Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren arduradunaren esku, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetzeko eta laguntzeko ere.

VII. ADMINISTRAZIOAREN ETA JURISDIKZIO ESKUDUNAREN ESKUMENAK

15.- ADMINISTRAZIOAREN ETA JURISDIKZIO ESKUDUNAREN ESKUMENAK

15.1- Administrazio Baldintza Berezien Plegu honen eta espedientean agertzen diren gainerako dokumentu teknikoen artean kontraesanen bat egonez gero, baldintzen plegu honetan xedatutakoa nagusituko da.

Kontratazio-organoak administrazio-kontratuak interpretatzeko, hura betetzeak dakartzan zalantzak argitzeko, interes publikorako aldatzeko, kontratistari kontratua betearazteko egotzi dakiokeen erantzukizuna adierazteko, haren betearazpena eteteko, ebazpena adosteko eta haren ondorioak zehazteko prerrogatiba du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan adierazitako ondorio eta betekizunekin bat etorriz eta muga horien barruan.
Era berean, kontratazio-organoak kontratistek kontratuaren betearazpenean garatutako jarduerak ikuskatzeko eskumenak ditu, kontratu-mota bakoitzerako aipatutako legean ezarritako baldintza eta mugekin.

Kontratazio organoak bere interpretazio, aldaketa eta suntsiarazpenaren eskumenak erabiliz hartutako erabakiak berehala burutu beharko dira

15.2.- Kontratuaren interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondoreetatik ondorioztatzen diren auzigaiak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Bere erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta horien aurka, administrazioarekiko auzi- errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean ezarritakoaren arabera. Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutako aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalizango dute enpresa interesdunek.

15.3.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarria ahalizango zaie Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 44.2. artikuluan aipatutako egintzei.Euskal Autonomía Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoari dagokio errekurtso berrien berri izateko eta horiek ebazteko ardura.

Iurreta
Eleizateko Udala

ERANSKINAK

1. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA

……. jaunak/andreak (helbidea: ……; NAN zenbakia:

Iurreta
Udalaren Elektronikoko Erregistroa

……), bere izenean edo …… enpresaren ordezkaritzan (helbidea: ……, IFK: ……), tfnoa……, helbide elektronikoa ……, …… ……. lizitazioari ekiteko deitutako prozedura irekian.

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

LEHENA.- Arriandin N-634 errepidearen ondoan espaloi bidegorria burutzea izeneko kontratuaren lizitazioan parte hartzera doala.

XEDEA	Arriandin N-634 errepidearen ondoan espaloi bidegorria burutzea		
Proiektu teknikoa eta Obra Zuzendaritza	Arduraduna	Aurrekontua	Onarpen data
BIDEIN INGENIARITZA	Angel Basabe Larrea Arkitektoa	238.256,43 € BEZ aparte	2022ko urria

BIGARRENA. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE direktibak Espainiako Ordenamendu juridikoan berrezartzen duen azaroaren 8ko 7/2017 Sektore Publikoaren Kontratu Legeak agindutako eta plegu honek eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela obra kontratuaren esleipenduna izateko, eta zehazki:

- ✓ lzaera juridikoa eta hala behar izan ezkero ordezkaritza daukala.

- ✓ Dagokion kasuan enpresa behar bezala sailkatuta dagoela eta kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoa frogatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.
- ✓ Ez dagoela sartuta Administrazio publikoekin inolako Administrazio publikoekin kontratatzeko debekutan, azaroaren 8ko 7/2017 Sektore Publikoaren Kontratu Legearen 71. Artikuluaren arabera, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- ✓ (Atzerriko enpresentzat) Edozein ordenatako epaitegien eta auzitegfen jurisdikzioari men egiten dion deklarazioa, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen auzi guztietarako, eta hala balitz kasua, lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzeriiko jurisdikzio foruari uko eginez.
- ✓ Jakinarazpenakegiteko posta da.
- ✓ Jakinarazpenetarako posta elektroniko helbidea ..... da

HIRUGARRENA. Berdintasun Planei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunari buruzkoan, aurreikusitako betebeharrei dagokienez,

A. 50 langile baino gutxiago, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planik ez.

B. 50 langile baino gutxiago eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana.

C. 50 langile edo gehiago eta xedapen horretan aipatzen den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.

LAUGARRENA. Exekuzio-faseko azpikontratazioari dagokionez, adierazten dut:

EZ ditu azpikontratatuko kontratuko prestazioak
BAI azpikontratatuko ditu kontratuko prestazioak, portzentaia honetan:
.....

BOSGARRENA. Konpromezua hartzen duela aipatutako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duten egiaztapen agiriak Kontratazio Organoak eskatzen duen unean ekartzeko eta, beti ere, esleipenerako proposatua baldin bada, esleipena baino lehenago agiriok ekartzeko.

Eta, hala ager dadin, eta Arriandin N-634 errepidearen ondoan espaloi bidegorria burutzea proiektuaren lehiaketarako prozedura irekian parte hartzeko agirien ondorioetarako, honako aitorpena egin du.

.....(e)n, 20.....ko .....aren .....(e)(a)n .

Sin.:

Iurreta
Eleizateko Udala

2. ERANSKINA ESKAINTZA EKONOMIKO EREDUA

.....jn./and., helbidea .....
..... duena, PK ....., NAN .....telefonoa
..... eta posta elektronikoa ....., bere ahalmen juridiko eta jardutekoaren erabateko jabetzan, neure izenean/.....-(r)en ordezkaritzan eta

ZERA ADIERAZTEN DUT

1) Arriandin N-634 errepidearen ondoan espaloi bidegorria burutzea izeneko kontratua arautuko duen Administrazio Baldintzen Pleguen jakitun nagoela.

2) Ezagutzen ditudala Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Baldintza teknikoen plegua eta lizitazio hau arautuko duen gainontzeko dokumentazioa, eta oso-osorik hartzen dudala neure gain eta men egiten diodala.

3) Kontratu honen burutzapenerako behar diren bitarteko guztiak jartzeko konpromezua hartzen dudala, eransten den dokumentazioan ageri den bezala.

4) Hitzematen dudala eskaintza honi erantsitako dokumentazioan eskatzen diren baldintzak beteko ditudala eta kontratua honako prezioan burutuko dudala:
..... euro gehi ..... Euro BEZ gisa, guztira ..... Euro direlarik.

.....-(e)n, 20..ko .....-(r)en .....-(e)an.

SINADURA

Iurreta
Eleizateko Udala

3. ERANSKINA BERME-ZIURTAGIRIAREN EREDUA

..... erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme-sozietatearen izen soziala), IFZ:..... duenak (jakinarazpen eta eskaeretarako helbidea: .....), eta bere izenean (ahalordedunen izen-abizenak) ..... jaunek/andreek, ekitaldi honetarako obligaziodun egiteko botere nahikoarekin, agiri honen atzealdean aipatutako botere-askiespenaren arabera, honakoa

ABALATU DU

..... (abaldunaren izen-abizenak edo izen soziala), ... IFZ duena, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, BEHIN BETIKO BERME azalpenpean, Arriandin N-634 errepidearen ondoan espaloi bidegorria burutzea xede duen kontratua adjudikatzeko, lurretako Udalean, ... eurotan (kopurua zifratan eta letratan adierazi).

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazi du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Nagusiaren 56.2. artikuluak zehaztutako betekizunak betetzen dituela. Abalhau era solidarioan emango zaio obligaziodun nagusiari, esklusioaren onurari berenberegi uko eginez, eta Gordailu-kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioetako organo baliokideen lehen agindeia jasotzean ordaintzeko konpromisoarekin, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legean nahiz hori garatzeko arauetan eta Gordailu-kutxa Orokorra arautzen duen arautegian aurreikusitako moduari jarraiki.

Abal hau indarrean egongo da lurretako Udalak edo bere izenean legez horretarako gaituta dagoen norbaitek indargabetzea edo itzultzea baimentzen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean eta lege osagarrietan ezarrita dagoenaren arabera.

Berme-agiri hau data honetan sinatu da, Abaten Erregistro berezian, ... zenbakipean.

.....(e)n, 20...ko .....aren .....(e)(a)n. (erakundearen izen soziala)
(ahalordedunen sinadura)

BOTERE-ASKIESPENA, GKO-REN AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO ABOKATUTZAREN ESKUTIK
(Probintzia/Data/Zenbakia edo kodea)

Iurreta
Eleizateko Udala

4. ERANSKINA- KAUDIMEN EKONOMIKOA AURKEZTEKO EREDUA

(Urteko kontuak Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean dituen adjudikaziodunak aurkeztu beharrekoa)

..... jaunak/andreak, ... NAN zenbakidunak, bere izenean edo .....enpresaren izenean eta ordezkaritzan (IFK: .....), ... kargua duen aldetik (ordezkatzeko ahalmenak zehaztu: administratzaile bakarra, ahalordeduna...), ... espediente-zenbakian ..... kontratatzeko beharrezkoa den KAUDIMEN EKONOMIKOA duela egiaztatze aldera,

HONAKO ERANTZUKIZUN AITORPEN HAU EGITEN DU:

Kontuak Merkataritza Erregistroan dituen adjudikaziodunarentzat

Jarraian jaso diren datuek fidelki egiten dute bat onetsitako eta erregistroan utzitako urteko kontuetan agertzen direnekin. Amaitu diren azken hiru urteetatik negozio-bolumen handiena izan duen ekitaldiari dagozkio, eta hori egiaztatzeko baimena ematen zaio lurretako Udalari.

Kontuak zein ERREGISTROTAN utzi diren		NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZ aparte)

Kontuak beste erregistro batean dituen adjudikaziodunarentzat

Jarraian jaso diren datuek fidelki egiten dute bat onetsitako eta erregistroan utzitako urteko kontuetan agertzen diren datuekin, eta horien kopia erantsi dut. Amaitu diren azken hiru urteetatik negozio-bolumen handiena izan duen ekitaldiari dagozkio.

KONTUAK zein erregistrotan utzi diren		NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZ aparte)

Eta jasota gera dadin, adierazitako lizitazioan kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko, aitorpen hau sinatzen dut

....., 20...(e)ko .....aren .....(a) Sin.
Enpresaren zigilua

Iurreta
Eleizateko Udala

4.B. ERANSKINA- KAUDIMEN EKONOMIKOA AURKEZTEKO EREDUA

(Urteko kontuak Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean ez dituen adjudikaziodunak aurkeztu beharrekoa)

..... jaunak/andreak, ... NAN zenbakidunak, bereizeneanedo .....enpresaren izenean eta ordezkaritzan (IFK: .....), ... kargua duen aldetik (ordezkatzeko ahalmenak zehaztu: administratzaile bakarra, ahalordeduna...), ... espediente-zenbakian ..... kontratatzeko beharrezkoa den KAUDIMEN EKONOMIKOA duela egiaztatze aldera,

HONAKO ERANTZUKIZUN AITORPEN HAU EGITEN DU:

1. Urteko kontuak ez ditu erregistro ofizialbatean utzi behar honako hauetako bat delako:

☐ Banakako enpresaburua

☐ Onura publikoko elkarte ezaitortua

☐ Beste batzuk (zehaztu) .....

2. Urteko kontuak erregistroren batean aurkeztu behar ditu derrigorrez, baina honako arrazoi honegatik ez du egin:

3. Kaudimen ekonomikoa eta finantza-kaudimena egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, 303 edo 390 ereduak edo balio erantsiaren gaineko zergaren adierazpenaren baliokidea edo 200 eredua edo sozietateen gaineko zergaren baliokidea edo egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein bitarteko aurkeztuko da, aurreko puntuetan adierazitako arrazoiagatik.

Erantsi den dokumentazioa		NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZ kanpo)

Eta honela jasota geratzadin, adierazitako lizitazioan kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko, aitorpen hau sinatzen dut

Iurreta Eleizateko Udala

....., 20.. (e)ko .....aren .....(a)

Sin.Enpresaren zigilua

5. ERANSKINA- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK EGITEKO DATUAK

..... jaunak/andreak (helbidea:.....; NAN zenbakia: .....), bere izenean edo ..... enpresaren ordezkaritzan (helbidea:.....).

ADIERAZTEN OUT: Jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez jasotzekodatuak hauek dira:

a) Hartzailea

b) Oharrak jasotzeko helbide elektronikoa

.....n, 20...ko .....

SINADURA

Iurreta
Eleizateko Udala